



### Lana / La obra

Bederatzi kontakizun, Alice Munroren unibertsoan kokatuak, zeinetan gertaeren joanean ustekabeko batek edo bat-batean oroimenera ekarritako zerbaitek bizitza oso bat argitzen baitute.

Munroren literatur mundua "eguneroko bizitza" da, Ontarioko Huron Countykoa zehazki. Mundu hori populatzen duten gizon, emakume eta umeak (baina bereziki emakumeak) eguneroko bizitzak ezartzen dituen eginbehar eta nekeetarako bizi dira. Ez dago gertaera bereziki misteriozuzurik, betidanik ezarritako moldeetan jaio, bizi eta hiltzen dira. Baina eguneroko bizitzan zoriak eta ustekabeak nahitaez duten lekua aski da haien tragedia handi edo txikiak Huron County baino eremu zabalagoko jendeari hunkigarri gertatzeko.

Feminista goiztiartzat ote zuen bere burua galdetu ziotenean, hona haren erantzuna: "Garai hartan, ez nuen 'feminista' hitza ezagutzen, baina horixe nintzela feminista, nola ez".

### Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Etsaiak, lagunak, ezkongaiak, maitaleak, senar-emazteak**

Egilea / Autor: **Emily Brontë**

Saila / Colección: Literatura Unibertsala, 172

ISBN / EAN: 978-84-9109-054-0

Salneurria / Precio: 19 € (BEZ barne – IVA incluido)

Orri kopurua / N° páginas: 416

Formatua / Formato: 13 x 19,5 cm

### Egilea / El autor

**Alice Ann Munro** (jaiotza-izena, Alice Laidlaw), Wingham, Ontario, 1931, kanadar idazlea da, ingelesez idazten duena. 2013an Literaturako Nobel Saria jaso zuen.

Bi urte egin zituen Ontarioko Unibertsitatean. Gero, Vancouverrerara joan zen bizitzera lehenbizi eta Victoriara ondoren. 1976an dibortziatu egin zen eta Clintonen (Ontario) hartu zuen bizilekua. Kontakizun laburrak idatzi zituen zenbait aldizkaritarako eta irratirako, hasieran, eta geroztik hiruzpalau urtean behin agertu izan diren bildumetan eman ditu bere kontakizunak.

1968an, bere lehen ipuin-bilduma argitara eman zuenetik (*Itzal zoriontsuen dantza*) dozena bat bilduma argitaratu ditu hurrengo 50 urteetan, besteak beste, *Nesken eta emakumeen bizitzak* (1971), *Kontatu nahi nizun zerbait* (1974), *Zein uste duzu zarela?* (1978), *Jupiterren ilargiak* (1982) azken hamarkadako ezagunenak arte: *Zorion handiegia* (2009) eta *Bizitza maitea* (2012).

### Itzultzailea / Traductor

**Isabel Etxebarria Ramírez** (Donostia, 1975). Euskal Filologia ikasketak egin zituen Donostian. Antonio Damasioren *Descartesen hutsegitea* (EHU, 2012) eta John Deweyren *Artea esperientzia gisa* (Klasikoak, 2009) itzuli ditu. Hau du lehen literatur itzulpena.

